

MABI REVUELTA ARTISTA

Dantza, poesia eta tipografiaren bitartez alfabetoa berrinterpretatzen du Mabi Revuelta «Divertimentos tipográficos» bere azken lanean. Erakusketa ikusgai egongo da Bilbaoarten abenduaren 4a bitartean.

«Gure gizartean leku gutxi izan ohi dute poesiak eta jolasak»

Aloña INTXAURRANDIETA

«Hondamendi handien ostean, norbera berriro hasi behar izaten da beti, zentzu batean, abezetik». Frantisek X. Salda txekiar idazlearen esaldi honek laburbiltzen du 1926ko «Abeceda» proiektuaren muina. Lehen Mundu Gerraren oihartzuna oraindik ere airean zegoela, Milada Mayerová dantzari eta koreografoak, Vítezlav Nezval poetak eta Karel Teige artista grafikoa alfabetoaren gaineko irakurketa poetiko bat proposatu zuten liburu batean, hitza eta gorputzaren jarrerak konbinatuz. Abangoardien ideiak batzen dituen liburu hori berreskuratu du Mabi Revuel-

tak, bere azken proiektuen oinarri eta ondorio moduan. «Enigma» eta «imagen» (irudia) hitzen arteko jokoan dago gakoa.

Nola sortu zen proiektua?

Bi urte eta erdi neramatzan gorputzarekin tipografia bat sortu nahian. «Abeceda» liburua aurkitu nuen, eta oso interesgarria iruditu zitzaidan poesia, dantza eta diseinu grafikoa lotzeko zeukan eragatik. Material hau esku artean nuela, BADEKO (Bilboko Antzerki eta Dantza Garai-kidearen Jaialdia) kartela egitea proposatu zidaten. Aurreko urteko zuzendariak, Fernando Perezek, kartelak dimentsio eszeniko bar hartu zezan nahi

zuen. Honela, gorputz-alfabetoaren ideia garatu eta jaialdiaren barruan aurkeztu nezakeen zerbait egitea proposatu zidan, eta modu honetan sortu ziren Arriagan aurkeztutako balleta eta Vanguardia galerian egindako *performancea*.

Artean alor eszenikoa landu gabea zenuela kontuan hartuz, lana antzoki batean kokatzeak aldaketa handi bat ekarriko zuen zuretzat.

Garrantzi handia eman izan diot beti piezak espazioan kokatzeko moduari, eta antzokia zentzu horretan ulertu nuen, piezaren beste osagarri bat izango balitz bezala. Kasu honetan, kutsu komertzialagoa duen gune eszeniko bat berreskuratu nahi nuen ohiko arauak apurtzen dituen pieza bat erakusteko. Honetaz gain, lanak abangoardia duenez abiapuntu, garrantzitsua iruditzen zitzaidan hemeretzigarren mendeko tesuinguru batean kokatzea.

Beraz, erakusketa honek proiektu osoa laburbiltzen duela esan daiteke?

Erakusketan ikusgai dagoena aurrez aipatutako guztia gertatu ahal izateko abiapuntua izan zen. Baina ez nuen prozesu osoan sortutakoa berriz erakutsi nahi. Zikloa bukatu ahal izateko jatorria itzultzea da helburua kasu honetan, «Abeceda» liburura, hain zuzen. Letrak laguntzen dituzten posturak Mayerovák egin zituen berak dira, eta ez dute forma imitatzea helburu, hizkiaren beraren interpretazio poetiko bat egitea baizik. Poesiak ere Nezvalek idatzitakoak dira. Ka-

su honetan, nire ekarpena letraren tipografia sortzea da, abangoardietako geometriari eta lerroen sinpletasunari jarraituz egin dudana. Gure lanaren oinarrien erregistro moduan ere ulertu daiteke erakusketa.

Abangoardia guztietatik, zergatik aukeratu zenuen txekiar poetismoa?

Ahaztuta geratu diren lan ugari daude, eta proiektu honen bidez hutsune hau betetzen saiatu naiz, batetik; eta arazoa plazaratu nahi izan dut, bestetik. Badakigu Teigek Le Corbusier eta Walter Gropiusekin erlazio estua zuela eta abangoardia guztiak lotuta zeudela nola edo hala. Baina historiak bakar batzuk hartu izan ditu kontuan. Hori dela eta, katalogoan bertan, erakusketaz hitz egin ordez, poetismoaren inguruko informazioa bildu dugu. Bestalde, oso interesgarria iruditzen zitzaidan proiektua bera, erabili ohi ditugun zeinuen hizkuntzaren oinarriak biltzen zituen lan berezi bat baitzen, artista liburu bat.

Zein izan daiteke abangoardia hori hain ezezaguna izatearen arrazoa?

Garai hartan frantsesa zen hedatuen zegoen hizkuntza. Nezval eta Teigek arazorik gabe irakurri, idatzi edota hitz egin zezaketen frantsesez, baina euren lanak egiteko garaian txekiera aukeratzaren zuten. Testu haiek ez ziren itzultzen, eta neurri handi batean horregatik ez zaizkigu iritsi. Nik jatorrizko hizkuntzan aurkitu nituen, eta Erdialdeko Europako literatura modernistan aditua den Odile Cisneros arduratu zen testuak gaztelaniara eta ingelesera itzultzeaz. Honela sortu zen proiektuaren oinarria, hizkuntzaren bidez.

Erakusketaren izenburuari erreparatuz, badirudi alde ludikoari ere garrantzia ematen diozula.

Gaur egun oraindik ere oso handia da arte garaikidearen eta berari jendeari helarazteko moduaren arteko aldea. Abangoardiek zuten kezka hori utopia moduan mantendu da. Urte askotan izan naiz hezitzaile, eta maiz galdetu izan diot neure buruari artea hezkuntzan jolasaren bidez sartzeko modu egokia zein den. Hein batean, alfabetoaren ideiak ere horregatik erakarri nau, eta izenburuan ere erakusten dut nire kezka hori. Izatez, hasieran «Play Time» izendatu nahi nuen proiektua, Jacques Tatiren filmagatik. Bertan, hasiera gris batetik jolasaldi koloretsu batera iragaten baita ikuslea, lehen uneko seriotasuna apurtuz. Halako lanak beharrezkoak iruditzen zaizkit, gure gizartean leku gutxi izan ohi baitute poesiak eta jolasak.



ARGAZKIAK: Jon HERNÁEZ | ARGAZKI PRESS

ABANGOARDIEN FUNTSA BERRESKURATUZ

Diziplina ugari batu dituzu proiektuaren ataletan.

Abangoardien ezaugarri hori berreskuratu nahi nuen, garai esperimental hura oso interesgarria izan zela iruditzen baitzitzaidan. Jendeak askoz ere joera handiagoa zuen bildu eta sortzeko. Guzti horretatik ateratzen ziren nahasketa eta eraginak oso gustuko ditut. Kasu honetan, balletak ahalbidetu zuen gehien kolaborazio lan hori. Zuzendaria ni banintzen ere, hamabost pertsonak osatzen genuen taldea. Jendeak

proiektua piztu eta ideiak gehitzeaz gain, kontrastatzeko aukera eskaintzen dizu. Baina, gaur egun, bakarrik lan egiteko ohitura dago zabaldago, besteak beste, artistek baliabide tekniko gehiago baitituzte eskura kanpoko laguntzarik gabe lan egin ahal izateko.

Diziplina anitzeko lanek zailagoa al dute egun toki bat aurkitzea?

Halako proiektuak euren freskotasunagatik onartzen dira ondo egun, baina, era berean, jendea lekuz



kanpo uzten dute, eta horrek nolabaiteko mesfidantza sortzen du eurekiko. Ez direnez hain ohikoak eta ezagunak, linbo moduko batean geratzen dira. Dena den, nire ustez mugetan eta ertzetan sortzen dira gauzarik interesgarrienak. Balletaren pieza, esaterako, ohiko antzerkiaren mugetatik harantzago doa. Besaulkipatioa hustu egiten dut, inor bertan eser ez dadin, jendea alboetako palkoetan esertzea nahi baitut. Ez dago antzokia hutsik uztea ulertzen duen zuzendari artistikorik. A.I.